

Disertazioa oinarriko edukien bloke batekin lotuko da (A, B edo C), baina ikaslea edozein garaitako autoreez baliatu ahal izango da aldeko eta kontrako argudioak emateko eta baita iritzi propioa argudiatzeko edota egunerokotasunarekin lotzeko ere.

DISERTAZIOA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK			
2. Konpetentzia Espezifikoa: Adierazpen argia eta zehatza	3. Konpetentzia Espezifikoa: Egitura egokia	9. Konpetentzia Espezifikoa: Argudiatze zuzena eta aberatsa	8. Konpetentzia Espezifikoa: Originaltasuna
0,5 puntu	1 puntu	1,5 puntu	1 puntu
• Erabilitako hiztegia egokia da eta gaiarekin lotuta dago. • Paragrafoen arteko lotura dago, eta irakurketa erraza da. • Ortografia eta sintaxia zuzenak dira. • Aurkezpena txukuna da.	• Sarrera argia da: gaiaren aurkezpena egiten da, tesia aurkezten da edo galdera berri batekin planteatzen da. • Garapena argia da: gaiarekin lotutako ideiak aurkezten dira eta ideien arteko lotura dago. • Konklusioa argia da: tesiari eusten zaio eta horren aldeko/aurkako aurreko argudioak laburtzen dira. • Koherentzia mantentzen da: ez dago kontraesanik.	• Erreferentzia egiten zaie gutxienez 2 autoreri. • Argudiaketa: galdetzen denari lotuta dago eta sendoa da. Gutxienez 2 argudio ematen dira. Aurrekoak baloratzeko: • Objektiboa eta kritikoa izateko esfortzua ikusten da, aurreiritziei gailentzen utzi gabe. • Garapen koherente eta sendoa egiteko esfortzua ikusten da. • Kontuan hartzen du arazoaren konplexutasuna, eta filosofiaren historian landu diren ikuspegien aniztasuna islatzen du bere argudiaketan (gutxienez elkarren artean bateragarriak ez diren bi ikuspegi aipatzen ditu, hau da, argudio edo ideia berdina elikatzen ez duten bi ikuspegi islatzen ditu).	• Egunerokotasunarekin lotuta dago. • Ez da beste proposamen baten kopia egiten. • Perspektiba pertsonala erakusten du.